Zarautz

2020

# SAN PELAIO

## EKITALDIAK

Ekainak 25 eta 26



*San Pelaio egunaren atarian gaude. Aurten zarauztarrok ezin izango ditugu nahi bezala ospatu hainbeste maite ditugun festa herrikoi kuttunak.*

*COVID-19aren ondorioz, une gogorrak bizi izan ditugu herrian azken hilabeteotan. Gure artetik agurrik jaso gabe joan zaizkigunak eta egoeraren krudeltasuna bizitzen ari direnak ditut bereziki gogoan. Ez dira, ez, festarako garai onenak. Ezinezkoa zaigu Sanpelaioak betiko moduan antolatzea. Gaitza izan duten zarauztar guztiak gogoan, aurtengo San Pelaio eguna beste era batera ospatuko dugu. Lagun artean edo familian, giro sano eta alaian bizi eta ospatzea opa dizuet denoi, betiere osasuna zaintzeko neurriak hartuta.*

*Normaltasunera itzultzen ari garen honetan ere, egunez nahiz gauez, errespetuz jokatu. EZ beti da EZ, eta ez dugu inolako jazarpenik edo erasorik onartuko, ez gure herrian, ez inon.*

***Besarkada estu bana denoi!***
***Gora San Pelaioak! Gora Zarautz!***

Xabier Txurruka
Alkatea

SANPELAIOAK

*Este año, las y los zarauztarras no podremos celebrar como quisiéremos las fiestas patronales que tanto queremos.*

*Estos últimos meses han sido muy duros. La COVID-19 nos ha llevado a vivir situaciones extremas en nuestro entorno. Quiero recordar especialmente a quienes han fallecido sin poder despedirse de sus seres más queridos y a quienes sufren con crudeza esta situación sobrevenida. No son tiempos para tirar cohetes y nos resulta imposible organizar un programa festivo al uso. Es por lo que, este año, celebraremos un día de San Pelaio diferente, en recuerdo de todos los y las zarauztarras que han sufrido la enfermedad. Os deseo a todas y a todos que podáis celebrar la festividad de San Pelaio en un ambiente sano y alegre, entre amigos o en familia. No olvidéis guardar las medidas personales de precaución para cuidar la salud pública.*

*En esta vuelta a la normalidad, sed respetuosos, tanto de día como de noche. NO siempre es NO, y no vamos a tolerar ningún tipo de acoso o agresión, ni en Zarautz, ni en ningun otro sitio.*

*¡Un fuerte abrazo a todos y todas!*
*¡Gora San Pelaio! ¡Gora Zarautz!*

ZARAUZKO UDALA



# 25 OSTEGUNA
## SAN PELAIO bezpera

| | | |
|---|---|---|
| **12:00** Arrosadia parkean | Covid-19aren garaian utzi gaituzten zarauztarren omenezko ekitaldia, Zarauzko Udalak antolatuta. | *Acto conmemorativo por las víctimas del Covid-19.* |
| **18:30** Herrian zehar | HAURREN AGERRALDIKO DOINUAK<br>*Igandea, Mauxitxa, Gauerdi eta Pasai txarangek herriko kaleak alaituko dituzte haur danborradaren doinuekin. Ibilbideak:*<br>• ***Azken Portun hasi,*** *auzoari buelta eman eta Araba kaletik Zelai Ondora joan eta pistan bukatu.*<br>• ***Iñurritzako zelaian hasi,*** *Gipuzkoa kalea zeharkatu, Kasino kalea, Lapurdi kalea eta Iñurritzako zelaian bukatu.*<br>• ***Vista Alegren hasi,*** *auzoari buelta eman, eta ondoren: San Inazio kalea, Musika Plaza, Ipar kalea, Santa Marina, Herrikobarra, San Frantzisko kalea, Kale Nagusia, Musika Plaza, Zigordia kalea eta Lege Zaharren enparantzan bukatu.*<br>• ***Itxasmendin hasi,*** *auzoari buelta eman, eta Araba kaletik kiroldegira joan; ondoren buelta Zuberoa kaletik eta Itxasmendiko pistan bukatu.* | *MELODIAS DEL ALARDE INFANTIL Las txarangas Igandea, Mauxitxa, Gauerdi y Pasai amenizarán las calles con las canciones de la tamborrada.* |



| | | |
|---|---|---|
| **23:30 *** Lege Zaharren enparantza | Zarauzko elkarteetako danborradako ordezkariek danborradako kantak joko dituzte. *Alkartasuna, Arkaitz Mendi, Arrano, Batzokia, Cachi Bachi, Carballeira, Iñurritza, Kayua, Ongi Etorri, Udaberri, Urpekoak eta Zurbaran.* | *Representantes de la tamborrada tocarán varios temas.* |
| **23:50 *** Udaletxeko balkoietatik | Felix Zubia eta Nahikari Gabilondoren bertso saioa. | *Bertsolaris desde los balcones del Ayuntamiento.* |
| **00:00 *** Lege Zaharren enparantza | BANDERA IGO eta Pelaioren ereserkia abestuko da. | *Izada de la bandera e himno de San Pelaio.* |

*** OHARRA: Ekitaldi honetan gehienez 200 herritarrentzako lekua egongo da, eta gonbidapenak aurrez zozketatuko dira. Gonbidapenik ez duenak ezingo du plazara sartu.**

*Ekitaldia zuzenean jarraitu dezakezu **zarautz.eus** webgunean, **Udaleko Youtube kanalean** edo **ERLO telebistan.***

***Recuerda! Sin invitación no podrás entrar a la plaza.***

***Puedes seguir el evento en directo en zarautz.eus, en el canal de Youtube del Ayuntamiento o en ERLO TV.***

# 26 OSTIRALA
## SAN PELAIO eguna

| | | |
|---|---|---|
| **09:00** | DIANA trikitilari eta dultzaineroekin. | *Diana con trikitilaris y dulzaineros.* |
| **11:00** San Pelaio ermita | Meza nagusia. | *Misa mayor.* |
| **13:00** Musika plaza | Lizarrako dultzaineroen emanaldia. | *Concierto de dulzaineros.* |



SANPELAIOAK

## *Elkarte eta eragile hauen elkarlanari eta konpromisoari esker egin dira Sanpelaiotako ekitaldiak:*

- Cachi Bachi, Francisco Zurbaran, Urpekoak, Carballeira, Arkaitz Mendi, Arrano, Kayua, Udaberri, Ongi Etorri, Batzokia, Iñurritza eta Alkartasuna gastronomia elkarteak.
- Turismo, Jaiak eta Ekitaldiak – Zarauzko Udala.

## ERASO SEXISTARIK GABEKO JAIAK!

### ZAINDU ZAITEZ, ZAINDU GAITEZEN, ZAINDU DITZAGUN!!!!

**LARRIALDIAK: 112**
**UDALTZAINGOA: 943 00 51 15**
**ERTZAINTZA: 943 53 89 00**

# PELAIO PELAIO

"Zarauztarrak hartu zaitugu
Pelaio, Pelaio, zaindaritzat
Zugana gatoz fedez beterik
Pozgarri izan guretzat
Pozgarri izan guretzat.

Garbitasuna gordetzearen
Eman zenduan bizia
Lirio eder horregatikan
Utzi zenduan guzia
Alperrik dabil errege gaizto
Maltzurkeriaz betia
Zure bihotza aurkituko du
Pekaturako itxia."

ANTOLATZAILEA:

ZARAUZKO UDALA
JAIAK ETA EKITALDIAK

*Argazkiak: Tolin / Viskwit*